

Terminologia-gailurra Bruselan

2006. urtearen bukaera aldera terminologok Bruselan hitzordua zuten bi urtez behin Europako Terminologia Elkarteak antolatzen duen terminologia-gailurrean.

Ekitaldi hauetan, azoken antzera, denetarik eskaintzen da. Azkenean norberak daki zer erosi nahi duen. Bertan lau gai jorratu ziren:

- ① Eztatidarako lehen gaia, "terminologia-politikak eta -plangintza" izan zen. Gai hau behin eta berriz agertzen da, eta agertuko da, terminologiari buruz hitz egiterakoan, baina gauza bat dago argi: nazio-mailako politika eta enpresa eta erakundeen mailako politika eta plangintzak, terminologian ere, oso ezberdinak izango dira beti, helburu ezberdinak baitituzte. Lehenengo kasuan hizkuntza zaintzea da helburua eta erantzukizuna, berriz, administrazioarena; bigarreanean diru-irabaziak dira helburua eta erantzukizuna ez dago argi. Honen adibide bezala kamioiak egiten dituen SCANIA enpresaren bi langilek, hizkuntzalariak biak, haien departamentuaren erabakiak exekutatzeko enpresa barruan duten indar falta nabarmendu zuten.
- ② "Arazo handiak hizkuntza txikietan"; hau ere beti agertzen den gai ezaguna dugu, "hizkuntza txikia" ez zaigula termino egokia iruditzen esatearekin batera. Esandakoetan, bi ideia azpimarratzen ditugu. Bata, hizkuntzaren erabiltzaileak ziurtasuna izan behar duela hizkuntza erabiltzen duenean, hau da, zalantzarik balu, non galdetu izan behar du eta bere hizkuntzaren erabilera bermatu. Terminologia hizkuntza espezializatuan beharrezkoa bada ezin da inongo zalantzarik eduki termino baten erabileran. Bestea, berriz, termino bermatuen zabalkundea oso beharrezkoa dela aurrekoak zentzua izango badu.
- ③ "Terminologoaren profila"; terminologoa sortu ala egin egiten da? Hirugarren gai honetan gauzak sekula baino garbiago agertu ziren. Terminologoa egin egiten da. Terminologoarena lanbide espezializatua da, baina ez dago inongo eskolatan erakusterik. Urte askotako lan-esperientziak egiten du terminologoa.
- ④ "Elkarlana eta beharrak"; terminologiaren beharrak gainditzeko hainbat baliabide aurkeztearekin batera, elkarlana proposatu zen, eta hau batez ere baliabide informatikoak konpartitzean datza. Egun terminologia-lanak corpusetan oinarritzen ditugu eta ez dago corpus bat kudeatzerik baliabide informatikorik gabe.

Imanol Urbietta